

Asisko gutuna

2016eko Otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

88. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Laugarren printzipio honetan senidetasun harremana landu nahi dugu, senidetasunean bizi. Jesusen piztuerako pasarteetan Pedrorekin agertzen zaigu eta honi galdetzen dio: “¿maite nauzu?” Pedrok ondotxo daki bere ukazioaz, eta negar-malkoz erantzuten dio: “Zuk bada-kizu baietz, maite zaitudala”.

Eta Pedrok konfiantza zer den ikasi zuen, errukia zer den. Maitasunez begiratutako pertsona sentitzea zer den ikasi zuen.

Gogoetarako gaia

Badut uste on zuregan, anaia, arreba

Senide arteko harremanek konfiantzan dute oinarria. Ez soilik bizitzako elkar-laguntzan agertzen den konfiantzan, baizik eta batzuek besteen alde egiten dugun bizi-apustuan.

Senidetasuna orduan eraikitzen da: senideari neure esperoak betetzen dituen ala ez baino haratago begiratzea lortzen dudanean. Halako egoera batzuetan neure uhin-luzera berean sentitzen dut senidea: proiektu berberak ditugu biok, antzeko ideiak, egindako bideak berberak, talde, leku, parrokia bera ... Beste batzuetan, egon gaitezke desados, bide bera egin ezinaren porrota sentitzen dugu, bizimodu bera egin ezinik topatzen gara... Hala ere, bestearekiko harremanean hari misteriotik, ez nire esperoak beteak ala huts eginak izatetik, begiratzen hasten natzaionean, harengan sinestera arriskatzen naizenean, ari naiz heltzen konfiantzara.

Senidetasuna ez da akordio batzuetan oinarritzen, anai-arrebagan jartzen dudana konfiantzan baizik. Nire konfiantza neure fedearen emaitza da, Jainkoak berak lehenik zuzendu didan begiradarena, ez noski nire lorpenengatik, bere maitasunarengatik baizik. Begirada hau gauza da bekatua eta anaiaren/arrebaren mugatasuna eta beherakadak ikusteko, ez delako ez ameskeriagilea ez on-inozoa. Hala eta guztiz, uko egiten dio, indar guztiez, bestea bere hutsegite nagusira edo blokeo psikologikora murriztua ikustera. Begirada honek zabalik uzten du Jainkoak egin dezakeena anaiagan/arrebagan.

“Uste on dut zuregan, anaia, arreba, Jainkoak nirekin erruki izan duelako eta zuri erruki horrekin berarekin begiratzen dizulako”.

Ebanjelioko pasartea: Lk 7, 36-43

Behin batean, fariseu batek bazkaltzera gonbidatu zuen Jesus. Joan zen, bada, Jesus fariseuaren etxera eta mahaian jarri zen. Hartan, emakume bat, herrian bekatari bezala ezaguna, Jesus fariseuaren etxean bazkaltzen zela jakinik, bertara joan zen, harzurizko ontzi bat ukendu zeramala. Jesusen atzean oinen ondoan jarri zen negarrez, eta oinak malkoz bustitzen hasi zitzaion; gero, ileaz xukatu eta musukatuz, ukenduz igurzten zizkion. Hau ikustean, gonbidatu zuen fariseuak bere baitan zioen: “Benetan profeta balitz, jakingo luke zer-nolakoa den ukitzen ari zaion emakumea, bekataria alegia”. Jesusek esan zion: “Simon, badut zerbait zuri esateko”. Hark erantzun: “Esadazu, Maisu”. Jesusek: “Diru-mailegari batek bi zordun zituen: batak bostehun denario zor zizkion eta besteak berrogeita hamar. Zerez ordaindurik ez zutelarik, barkatu egin zien biei. Bietako zeinek izango ote du maiteen?” Simonek erantzun zion: “Gehien barkatu zionak, nik uste”. Jesusek esan zion: “Zuzen diozu”.

Frantziskotar espiritualtasuna

«Jaunak hain fede handia eman zidan elizekiko, honela egiten bainuen otoitz xaloki: “Adoratzeko zaitugu, Jesu Kristo Jauna, baita mundu osoko zeure eliza guztietan ere, eta bedeinkatzen zaitugu, zeure gurutze santuaz mundua berrerosi zenuelako”. Ondoren, Jaunak hain fede handia eman zidan eta ematen dit...apaizekiko..., ze, pertsegitutako banindute ere, beraiengana jo nahi baitut. ...Apaiz hauek eta gainerako guztiak nahi ditut errespetatu, maitatu eta neure jaun gisa ohoratu. Eta ez diot haien bekatuari erreparatu nahi, Jainkoaren Semea sumatzen baitut haiengan... Eta honexegatik jotzen dut horrela: ez dudalako mundu honetan gorputzeko begiz Jainkoaren Seme goi-goikoarenik ezer ikusten, bere gorputz eta odol txit santuak baizik, eta gorputz-odolok apaizek hartzen dituzte eta beraiek bakarrik besteei ematen. Eta misterio txit santu hauek beste ezer baino gehiago ohoratzea eta beneratzea eta leku ederretan jartzea nahi dut» (Test 4-11).

Frantziskorentzat hori da pertsona ororen azken misterioa: “Jesu Kristo Jaunaren gurutzeaz berrosi bat” izatea, azken hertzeraino maitatua eta onartua izan den norbait. Horregatik esaten digu, ez duela inoren bekatuan erreparatu nahi, baizik eta guztiengan Jainkoaren Semea kontenplatu; Jesu Kristok haien alde eta haiengan egin duena ospatu; nor bakoitza Jainkoarentzat den hura kontenplatu eta beneratu.

Otoitza

Goazen elkarrekin banatzera
une honetan sortzen diren besarkada eta musuak,
bidean edukitako pozak,
geure bihotz zaurituaren taupadak
eta afari hain berezi eta bihotzeko hau...

Goazen elkarrekin banatzera
erraietatik sortzen zaigun hitza,
goitik, izotza bezala, datorkiguna,
iturburu ez jakinetatik sortzen zaiguna,
geu atzitu eta kanpora irteteko lehian ari dena...

Goazen elkarrekin banatzera
gure historiaren pobrezia,
urteetan pilaturiko jakinduria,
geure musuko zimur eta arrastoak
eta haurtzarotik gelditzen zaizkigun lore-begiak.

Goazen elkarrekin banatzera
geure topaketa anaikorretako irakaspenak,

geure sutondo emankorretako beroa,
geure talde-lanetako sareak
eta geure amets guztien matazak.

Goazen elkarrekin banatzera
zure gau bete hartako irakaspenak,
doan utzi zenizkigun ogia eta ardoa,
garbitu gintuzuneko etsenplua
eta Espirituaren ildoak zuri jarraitzeagatik...

Inoiz ez azkeneko hitzik,
inoiz ez goragoko jakinduria zantzurik,
inoiz ez katedra finkatzerik,
inoiz ez egia absoluturik!

Eta horrela, Jauna, gara eta goaz bihurtuz
seme-alaba eta senide, ikasle eta adiskide,
nekaldi- eta aintza-denbora honetan,
elkar partekatuz.

Gutuneko azken hitzak

“Mesfidantza sartzen denean, maitasuna atera egiten da”. (Irlandar esaera zaharra)

2016ko otsaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate otsaileko erreferentzia guztiak:

1 Mk 5, 1-20	7 Lk 5,1-11	13 Lk 5, 27-32	19 Mt 5, 20-26	25 Lk 16, 19-31
2 Lk 2,22-32	8 Mk 6, 53-56	14 Lk 4,1-13	20 Mt 5, 43-48	26 Mt 21, 33-43.45-46
3.Mk 6, 1-6	9 Mk 7, 1-13	15 Mt 25,31-46	21 Lk 9,28b-36	27 Lk 15, 1-3.11-24a
4 Mk 6, 7-13	10 Mk 6,1-6.16-18	16 Mt 6, 7-15	22 Mt 16, 13-19	28 Lk 13, 1-9
5 Mk 6, 14-29	11 Lk 9,22-25	17 Lk 11, 29-32	23 Mt 23-1-12	29 Lk 4, 24-30
6 Mk 6, 30-34	12 Mt 9,14-15	18 Mt 7, 7-12	24 Mt 20, 17-28	

Otsailean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 25an izango da 19:30tan